

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO EKIMENAK. GIPUZKOA HERRIALDEKO KASURAKO APLIKAZIOA

Tesiaren egilea: Artizar Erauskin Tolosa

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ekonomia Aplikatua I

Tesi-zuzendaria: Mikel Zurbano Irizar eta Elena Martínez Tola

Tesiaren laburpena:

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeak (EKPB), irizpide ekonomikoaz gain, erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuan ingurumen-irizpideak ere barneratzen ditu. Doktorego-tesi honen azken xedea, Garapen Iraunkorraren testuinguruan, Gipuzkoako Tokiko Administrazioek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari loturiko ekimenak zein neurritan aplikatzen dituzten sakonki aztertzea da. Beraz, ikerlan honen helburu nagusiak izan dira, alde batetik, Gipuzkoako errealitate hurbilenean erosketa- eta kontratazio-arduradunek ikuspegi ekonomikoa lehenetsiko dutela eta ingurumen-irizpideen eskakizunen ezarpena astiro joango den prozesua izango dela dioen hipotesi orokorra eta, bestetik, ondorengo lau hipotesi zehatzagoak egiaztatu edo, aldiz, zalantzan jartzea:

- a) Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeak ingurumen-eragin kaltegarriak murrizteko eta baliabide naturalak eta ekonomikoak modu eraginkorrago batean erabiltzeko aukera ematen du.
- b) Gipuzkoako Tokiko Administrazioak eredugarriak dira, lehentasun estrategikoa ematen baitiote erosketa eta kontratazioari eta ingurumen-irizpidea barneratzeko protokoloak garatuak baitituzte.
- c) Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeak tokiko administrazioen garapen instituzionalaren mugarekin topo egiten du.
- d) Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen garapenean tokiko administrazioek gainerako eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartzea bideratzeko moduan, langileen prestakuntzari eta epe luzeko estrategiei ematen dieten garrantzia giltzarria da.

Metodologiari dagokionez, alde batetik, oro har Garapen Iraunkorrari, Hazkunderaren Ekonomiari eta Garapenaren Ekonomiari eta zehatzago Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruz eskuragarri dagoen literatura zientifikoaren berrikuspenean oinarritu da. Bestetik, Herri Administrazioek buruturiko gastuek herrialde edo erregio bateko ekonomian duten eragina aztertzeko, Herri Administrazioa eta Input-Output taulak erlazionatu dira. Aurrekoaz gain, Gipuzkoako ingurumen-jardueren garrantzi ekonomikoa neurtzeko modu bat proposatu da eta, aldagai anitzeko teknika estatistiko batean oinarriturik, gipuzkoar udalerrien iraunkortasun-maila ebaluatu da. Amaitzeko, Gipuzkoa herrialdeko udalerrietan

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari loturiko ekimenek izan duten aplikazio-mailari buruzko zehaztasunak lortze aldera, Gipuzkoako tokiko erakundeetara igorritako inkesta eta kasu-metodologia bidez eskuratu diren datuekin osatu den AMIA analisiaren bidez osatu da doktorego-tesi hau.